

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIAK ERASO SEXISTARIK GABEKO JAIK ESKATU DITU

Donostiako Udaleko Aniztasun, Inklusio eta Berdintasun Saialak eraso sexisten eta indarkeria matxistaren aurkako udako kanpaina prestatu du, udan egiten diren jaietara begira.

"Festetan ere aske, Indarkeria sexistarik ez!", "Por una fiestas libres, no a la violencia sexista!" urte honetarako aukeratutako leloa da, Cristina Lagé Aniztasun, Inklusio eta Berdintasun zinegotziak adierazi duenez.

Lagéren esanetan, «Hiriak indarkeria sexista mota guztiak arbuiatzen dituela ikusarazi nahi dugu, eta, horrekin batera, herritarrak sentsibilizatu nahi ditugu, errespetutsuak izateaz gain, edozein eraso sexista salatu behar dela jabetu daitezen, isildu beharrean».

Zinegotziak adierazi duenez, azken urteotan bezala, "Bulebarrek puntu morea izango du antzinako prentsa-kioskoan; indarkeria matxistari buruzko informazioa, prebentzioa eta arreta emateko leku bat izango da, batez ere garai honetan hasten diren jai guztietan erabilgarri izango dena.



Prentsa oharra

Nota de prensa

Puntu horretan, indarkeria eta portaera matxistekiko jendeak duen sentsibilizazioa areagotuko da, botere eta/edo menderatze jarraibideak eta harremanak prebenitzeko beharraz ohartaraziko da, errespetuan oinarritutako harreman afektibo-sexualak sustatuko dira eta, jaietan indarkeria sexistako kasurik gertatuz gero, erantzuna emango zaie".

Donostian, udan, bisitari asko etortzen dira hirian egun batzuk pasatzera. Horregatik, turistak maiz bisitatzen dituzten eremuetan egingo da kanpaina, hala nola tabernak eta hondartzetako kabina kolektiboak, turistentzako ostatuak eta ostalaritzako lokalak.

Kanpaina sortzeko, koordinazio-lan handia egin da, alor askotako arduradunekin: auzoetako jaiak, Jazzaldia, Donostia Festak, Udaltzaingoa, Hondartza eta Aterpetxe Sailak eta gaueko aisialdiko tabernak.

2.000 liburuxka jarri dira eskuragarri, euskaraz eta gaztelaniaz, mutilentzat; beste 2.000, neskentzat; 500 liburuxka frantsesez eta ingelesez, mutilentzat; beste 500 liburuxka frantsesez eta ingelesez, neskentzat; 10.000 liburuxka, euskaraz eta gaztelaniaz, herritar guztientzat, eta beste 2.000 gehiago, frantsesez eta ingelesez.

Horrekin batera, 10.000 txapa atera dira, kanpainaren leloarekin; 12.500 eskumuturreko luminiszente; 10.000 pegatina; 2.500 zapi, 6.000 tote bag edo oihalezko poltsa eta 1.000 jarduketa-protokolo, ostalaritza-lokaletan banatuko direnak.



Prentsa oharra

Nota de prensa

Kanpaina ekainaren 23an hasiko da, San Juan jaietan, tabernetan materiala banatuz eta informazio-puntu bat jarritz (puntu bat Kursaaaleko zubian). Jai hauetan guztietan jarraituko du: Jazzaldian (puntu bat Kursaaaleko zubian); Karmengo jaietan (puntu bat Portuan); Groseko Zipotz jaietan (puntu bat Katalunia plazan); Aste Nagusia (puntu bat Bulebarreko kioskoan); Euskal Jaietan, estropadetako igandeetan barne (puntu bat Bulebarreko kioskoan); Egiako Porrotxo jaietan (puntu bat Karmengo Ama kalean), eta abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean (puntu bat Bulebarreko kioskoan).

Hauxe da jaien eta kanpainaren egutegia:

JAIAK	EGUNAK	ORDUTEGIAK	KOKALEKUA
San Joan	Ekainaren 23a, igandea	19:00 – 01:00 (6 ordu)	Kursaaaleko zubia
Karmengo jaiak	Uztailaren 13a, larunbata	22:30 – 04:30 (6 ordu)	Bulebarreko kioskoa
Zipotz jaiak (Gros)	Uztailaren 20a, larunbata	21:00 – 03:00 (6 ordu)	Katalunia plaza
Jazzaldia	Uztailaren 24a, 25a, 26a eta 27a (asteazkena, osteguna, ostirala eta larunbata)	20:00 – 01:30 (5 ordu eta erdi, egunean)	Kursaaaleko zubia
Aste Nagusia	Abuztuaren 10etik 17ra	13:00 – 10:00 (21 ordu, egunean)	Bulebarreko kioskoa
Euskal Jaiak	Sagardo eguna eta estropaden finala	Irailaren 7a, 11:00 – 17:00 Irailaren 8a, 10:00 – 16:00	Bulebarreko kioskoa
Porrontxoko jaiak	Irailaren 13 eta 14a	22:00 – 04:00	Luis Martin Santos plazaren aurrea

